

OÑATI ARRASATE- HERRI LASTERKETA

Arautegia

“Oñati-Arrasate” herri lasterketa Arrasateko AED elkarteak antolatzen du, Arrasateko Atletismo taldearen eta Oñatiko Antxintxiketan K. Elkartearen laguntzarekin.

ARAUTEGIA.

- 1.** Lasterketa Arrasateko AED elkarteak antolatzen du, Arrasateko Atletismo taldearen eta Oñatiko Antxintxiketan K. Elkartearen laguntzarekin.
- 2.** Irteera Oñatiko Foruen Enparantzan eta helmuga Arrasateko Herriko plaza nagusian egongo dira kokatuak. **Urriaren 27an goizeko 11etan emango zaio hasiera.**
- 3. 2003** urtean edo lehenago jaiotako edozeinek har dezake parte.
- 4.** Lasterketak **11,7 km** bidea izango du eta bukatzeko ordu eta erdiko denbora emango da.
- 5.** Sariak ezingo dira metatu eta honako partaideei emango zaizkie:
 - Lehenengo hiru emakumeak
 - Lehenengo hiru gizonezkoak
 - Lehenengo emakume oñatiarra
 - Lehenengo gizonezko oñatiarra
 - Lehenengo emakume arrasatearra
 - Lehenengo gizonezko arrasatearra
 - Lehenengo hiru emakume beteranoak =+35
 - Lehenengo hiru gizonezko beteranoak =+35
 - Lehenengo talde oñatiarra
 - Lehenengo talde arrasatearra

6. Izen ematea:

Aurrez egin behar da herrikrosa.eus; webgunean 2019-10-26 arte edo LORAMENDI kirolak dendan 2019-10-24 arte.

Korrikalariak proba aurreko egunetan bere izena parte-hartzaileen artean azaltzen dela ziurtatu beharko du.

Egunean bertan ez da izen ematerik onartuko.

7. Izen-ematea banaka edo talde batean egin daiteke. Sailkapenerako eta saritarako kontuan hartuak izango dira soilik 6 kideetik gorako taldeak, taldeko kideen erdiak gutxienez emakumeak izan beharko direlarik.

8. Lasterketan parte hartzeko **12 euro** ordaindu beharko dira, izen-ematearekin batera.

Dortsala lasterketa egunean Oñatiko irteeran jaso ahal izango da 9:30etik aurrera.

9. Antolatzaileek autobusak jarriko dituzte **Arrasatetik Oñatira korrikalariak eramateko; autobusak 9:15ean** aterako dira, Garibaiko geltokitik; autobusa **erreserbatu ahal izango da izen ematea egitean, izen-ematea 2 euro gehiago ordainduta. Hau da, 14€ denera.**

10. Antolatzaileek Korrikalarien arropak Oñatitik Arrasatera eramateko zerbitzua eskainiko du. Arropak **10:45** baino lehen utzi beharko dira.

11. Lasterketa amaieran opari eder bat emango zaio korrikalariari parte hartze hutsagatik.

12. Arautegi honetan jasotzen ez den edozein arazoren aurrean erabakia Batzorde Antolatzaileak izango du.

13. Antolatzaileek parte hartzaileak behartzen dituzte dortsalak **KATEORRATZEZ ETA TOLESTU GABE** eramatera

14. Parte hartzaile orok, izen-ematea egiten duen unetik, ezagutu eta onartzen ditu lasterketaren arauak eta aitortzen du egoera fisiko onean dagoela, bere osasuna arriskuan jarri edo parte hartzea eragozten dion gaixotasunik ez duelarik eta parte hartzeagatik sor daitezkeen kalteen erantzule egiten da.